# Denbora-

Erantzunak: **2.-** 2-5. **4.-** A-3, B-1, C-4 eta D-2. **6.-** Koroa, sega eta mikrofonoa falta dira. **7.-** Martinek 2.775 kilo jaso ditu, eta Pellok 2.750 kilo.

## 3 Zazpi aldeak

Piragua berri bat oparitu diote Oierri urtebetetze egunean, eta hantxe joan da errekan aurrera. Argazkia ere atera diote. Zazpi gauza aldatu ditugu argazkian. Zein?












## 4 Osatu irudiak

Suge bat erosi behar omen du Mertxek etxerako. Sugeei ateratako argazkiak bitan zatitu ditugu. Begiratu sugearen burua eta isatsa, eta osatu argazkiak.

## 5 Osatu hitzak

Aztiak mirariak egiten badaki. Eta zuek? Saskitik ateratako hizkiekin ea zenbat hitz osatzen dituzuen.

# -pasak

## 6 Osatu esaldiak

Mezu ezkutuak idaztea gustuko du Albertok. Hitzaren ordez marrazkiak tartekatzen ditu maiz. Osatu esaldiak!

Gure herriko erregeari  falta zaio

Belarra mozteko  bat erosi beharko dut

Kontzertuan nire ahotsa entzun dadin  bat behar dut

____________________

____________________

____________________




## 7 Harri-jasotzaileak

Ez omen dute erretiroa hartuko Pellok eta Martinek. Bitartean, apustuak egiten jarraitu dutela diote. Ea nork irabazi duen oraingo honetan.




# Jolasa

## Mahaiko futbola

Futbol partida batean gola sartzea ez da erraza. Joko honetan are gutxiago. Ea sartzen duzuen txanpona bi potorekin egindako atetik



1 Jarri bi freskagarri poto mahaiaren gainean. Poto batetik bestera tarte txiki bat utzi behar da. Gogoan izan bi potoekin futboletako atea egin behar dugula.

2 Mahaitik bi metrora ezarriko dira jokalariak. Hori izango da jaurtiketa puntua.

3 Jaurtiketa puntutik txanpon bat botako dute mahaira jokalariek, txandaka. Bi potoen artetik igaro behar du txanponak.

4 Txanpona bi potoen artetik pasa eta mahaitik erortzen ez bada, jokalariak gola sartu duela esan nahi du.

5 Lehen bost puntu egiten dituen jokalariak irabaziko du partida.